

## **BIDEGOIAN / Urtebete pasa ondoren, liburutegiaren balantzea positiboa izan da**

**Begoña Olamusu da arduraduna eta berak dauzka urteko datuak eta erantzuna ona izaten ari da.**

### **NEREA URBIZU**

Liburutegian Nagore ari zen etxeko lanak egiten, ia egunero bezala. Harekin batera, beste asko joaten dira ikastetxeak bidalitako lanak egitera. Nagorek esan bezala, lan batzuk hemen egiten ditut eta beste batzuk etxean. Liburutegia gustatzen zait. Begoña Olamusu liburutegiko arduradunak eguneko batz bestea, 15-20 lagun joaten direla argitu du.

Gehien irakurtzen dena nobela, eleberria da eta batez ere helduena. Hala ere, guraso asko ere etortzen dira umeekin, gauza bat edo bestea egiteko. Gogoratu behar da ere, haurrek bereziki haientzako egokituta dagoen txoko bat badela han bertan.

Uztailean, abuztuan eta iraileko egun batzuetan itxita egon zen, baina bestela, astelehenetan eta asteazkenetan egoten da irekita arratsaldez. Urte osoan zehar 84 lagunek eskuratu dute txartela. Honen bidez, bertan dauden liburuak eta materiala eskatu ahal izango dute eta baita etxera eraman ere, noski.

### **Aurtengo zerbitzu berria**

Aurten orain arte ez zegoen zerbitzu bat jarri dute martxan, eskaera bidezko maileguena, alegia. Liburu bat eskatu eta hemen ez badago, sarea osatzen duten liburutegietan eskatu eta handik egun gutxira honera ekartzen dute mezulari bidez. Dagoeneko jendea hasi da erabiltzen eta batez ere helduek eskatzen dituzte gauzak.

Urtean zehar liburu berriak erosten joan da Begoña Olamusu: Hauek beharren arabera eta jendearen eskaeren arabera erosten ditut. Askotan DBHko ikasleek eskolan behar dituzten liburuak izaten dira. Bestela, helduentzako eleberriak dira gehien eskatzen direnak. Bestela ere, oinarrizko liburuak izan dira eskaera handia izan dutenak: atlasak, hiztegiak... Materiala erosteko aurrekontu bat dago.

### **Txartela noiznahi egin daiteke**

Ostiralero herriko jende heldu talde bat liburutegian elkartzeko da, eta irakurtzeko zaletasunaz gain, hitz egiteko ere elkartzeko dira bertan. Horretarako txoko bat dago, mahai eta guzti. Beraz, bestelako zerbitzuak ematen ditu liburutegiak.

Herritarrek txartela eskuratzeko liburutegian bertan dagoen agiri bat bete behar dute. Berdin du zein urteko garaian datorren, bakarrik papera bete behar da.

### **HAINBAT DATU**

Duela urtebete pasatxo Bidegoiango liburutegia inauguratu zuten, 2008ko urtarri-laren 11n. Hilaren 14an berriz, martxan jarri zuten herritarrentzat. Bada, urtebete igaro ondoren, bertan lan egiten duen Begoña Olamusuk balantze baikorra egin du.

**Erabiltzaileak:** 1.900. **Txartelak:** 84 lagun. **Maileguak:** 641 (Euskaraz 431 eta erdaraz 210) **Erositako liburuak:** Urte osoan 84. **Liburu erregistratuak:** 4.900.